

122 free  
RENTAL

info+ www.naiz.eus

GARA

2025 | 2 | 11

ASTEARTEA  
XXVII. urtea | 9.429. zk.  
1,70 euro

# Bruselas sopesa su respuesta a la guerra comercial de Trump

El anuncio del presidente de EEUU de que impondrá aranceles del 25% a la importación de acero y aluminio ha puesto en guardia a todo el mundo. La CE ve la medida «ilegal» e «injustificada».

Empeñado en ofrecer al menos un sobresalto diario, Donald Trump avanzó a última hora del domingo un gravamen del 25% para todas las im-


portaciones de acero y aluminio, una medida que no es nueva, ya la impuso en su primer mandato, pero que provocó una cascada de reacciones

en el mundo. Bruselas consideró «ilegal» y «contraproducente» este movimiento, y anunció que responderá ante un ataque «injustificado» que

ponga en riesgo sus intereses, aunque sin concretar. La siderurgia y la metalurgia vascas observan la escalada con cautela y preocupación. >16

Iker ARAGUAS, Ixone FERNÁNDEZ. Grupo promotor de la Red de Personas Torturadas de Euskal Herria >23

## «Cada vez es más difícil negar que la tortura fue algo sistemático»



### Zaramagako San Frantzisko, utzikeriak hondatu duen «memoria gunea»

Testua: Iñaki IRIONDO  
Argazkia: UTZITAKOIA

Gauza asko ikusitakoa da Zaramaga auzoko San Frantzisko eliza, Gasteizko langileriaren antolakuntza eta borroka, eta haren kontrako errepresioa, besteak beste. Horma horien inguruetan Poliziak bost lagun hil zituen 1976ko martxoaren 3an, eta haren gerizpean antolatuta dira hildakoak oroitzeko ekimenak. «Memoria gunea» izendatuko ei dute laster, baina eraikina ia erabat hondatuta dago, putzuek eta hezetasunak kaltetuta. Memoria historikoaren itoginen ondorioa, agian. >4-5

CRÓNICA  
XOLE ARAMENDI

«Gaua» hace de Ezkio un mundo mágico y oscuro

El caserío Igartubeiti de Ezkio acoge estos días el rodaje de "Gaua", nuevo trabajo de Paul Urkijo, que tras las celebradas "Errementari" e "Irati" vuelve a adentrarse en la mitología vasca. >25

Boyomo rescata un punto para Osasuna (1-1)




NATXO MATXIN

Con los puestos europeos en mente, Osasuna y Mallorca llegaban igualados a un duelo intenso que se decidió en el último tramo. Muriqi, de penalti, adelantó a los bermellones, pero Boyomo rescató un punto en el descuento (1-1). >23

# BERRIA

## 'Gaua'-ren filmaketa betean ari da Paul Urkijo

- 'Errementari' eta 'Irati' filmetan bezala, bere hirugarren film luzean ere euskal mitologiaren unibertsoan murgildu da Urkijo.
- Fantasia eta errealitate historikoa uztartuz, sorginen ehiza betean girotu du 'Gaua'.



Garbine Ubeda

EZKIO— Euskal mitologia inspirazio iturri oparua da Paul Urkijo zinemagilearentzat. Bere aurreko bi film luzeak —*Errementari* (2016) eta *Irati* (2023)— fantasiazko unibertso horretan kokatu zituen, eta ildo beretik jo du hirugarren filmean ere. Ezkioko Igarubeiti baserrian (Gipuzkoa) filmatutako sekuentzia bat ikusitako aukera izan du BERRIAK. Gaua XVII. mendean girotuta dago, sorgin ehiza betean hain zuzen; izenburuan bertan igarri daitekeenez, gaueko izaki mitologikoak ditu protagonista. Estreinakoz, Irusoin ekopiztetxearekin ari da Urkijo.

Yune Nogueiras, Ane Gabarain, Elena Irureta eta Iñake Irastorza aktoreek antzetzuko dituzte istorioeroi rol nagusiak. Nogueiras

izango da Kattalin, film osoa harilkatuko duen pertsonaia, alegia. Zuzendariak «bermetzat» jo ditu laurak ere: «Hasieratik izan dut oso argi aktore horiekin egin nahi nuela filma». Bada aktore gehiago ere: besteak beste, Xabi Jabato, Manex Fuchs, Elena Uriz, Erika Olaizola eta Laura Iturregi.

Fantasiazko filmak Euskal Herriko gertaera historikoekin uztartzeko ohitura du Urkijok. *Errementari* filmean XIX. mendera jo zuen, *Irati*-n VIII.era, eta *Gaua*-n, berriz, bederatzimende aurrerago eramango ditu ikus-entzuleak: «Inkiszioak gogor jo zuen garaian sortu ziren gaueko ipuin eta sorginen mito asko, baita gezur asko ere. Gai hori hartasiera eta errealtitatearen artean nabigatzen joango da filmean», azaldu du zinemagileak. Gauako istorio horiek umeak bel-

durtzeko izaten zirela gaineratu du: «Istorio horietan mundu ilun eta beldurgarri baina era berean magiko bat sortzen da; hori islatu nahi dugu filmean». Gertaerari gaurko ikuspegitik helduko diotela ere esan du Urkijok: «Garai hartako drama historikoari buruz hitz egingo dugu, baina baita gaur egungo egoerari buruz ere».

Filmak «ikasteko asko» eman diola nabarmendu du Nogueiras: «Pelikulan kontatzen dena erakustea oso beharrezkoa dela iruditzen zait». Harentzat «karamelu bat» izan da *Gaua*-n egokitu zaion rola antzetzeta, eta oso gustura agertu da: «Intentsitate handiko pertsonaia da Kattalin. Erruak mugitzen du, baina filmean barrena goazela bere tokia aurkituko du, eta bere burua eza-gutzeko balioa dio».





«Garai hartako drama historikoari buruz hitz egingo dugu, baina baita gaur egungo egoerari buruz ere»

PAUL URKIJO  
Zinema zuzendaria

Irusoin ekoiztetzeko kide Ander Barinagarmenteria pozik agertu da Urkijorekin lan egiteaz: «Gurutzat abentura bat da horrelako proiektu handi batean aritzea». Gorabeherez eta zailtasunez ere mintzatu da Barinagarmenteria:

«Itxuraz, *Irati* filma baino itxiagoa dirudi, ez behar bada horren epikoa, baina ez da hala, *Gaua* oso konplexua da». Zailtasunen artean, pelikula zatika grabatu beharra aipatu du, hau da, toki ezberdinetan filmatutako eszenei jarraitutasuna ematea: «Horrek planifikazio handia eskatzen du aurrez». Urtarilaren 20az geroztik Arabako Albarbia mendian, Andre Maria Orokoaren santutegian eta Letonan aritu dira grabaketan, baita Elorrión (Bizkaia) eta Agiñetako nekropolian ere (Gipuzkoa), Ezkion hasi aurretik. Zenbait eszena Oiarzungo (Gipuzkoa) Zinealdea platoon amaituko dituzte. Lokalizazio horiek guztiak, azkenerako, Baztango (Nafarroa) ingurua taxutuko dute.

Generoko filma izanik, lokalizazio ugarietz haragoko konplikaziorik ere badu *Gaua*-k.



↑ Paul Urkijoren taldea hainbat tokitan ari dira filmatzen *Gaua*. Ezkioko Igartubeiti baserrian izan da BERRIA.  
DAVID HERRANZ

Urkijo: «Teknikoki gauza mordo bat zaindu behar dira, efektuak ere ugari ditu, eta historikoa da gainera. Horrek guztiak denbora eskatzen du». Horrez gain, negu gorrian, euritan, basoan eta ordu txikitik grabatu beharrek ere eragozpen bat baino gehiago eragin die. Barinagarrementerik «tresneria guztiarekin basora igo beharra» eta filmak beharko dituen figurante mordoak gehitu ditu zerrenda horretara.

Gauzak ondo bidean, sei aste eta hiru egun emango dituzte filmaketan. Dagoeneko erdia egin dute. ●


# Topaketen oihartzunetarako sei gordailu

Uxue Rey Gorraiz

Abangoardiako artearen dardara urte bikoitietan ez ezik bakoitietan ere nabarmen senti dadila nahi dute Iruñeko Topaketetako antolatzaileek. Eta, besteak beste, horretarako balio die Topaketen Memoria Artistikoa programak. 2022an estreinakoz, eta 2024an bigarren, 1972an Iruñean izandako arte topaketetan inspiratutako programazioak antolatu baitituzte hiri berean —aurrerantzean ere bi urtean behin egingen dute—, eta egitarau horietan jorratutako gaien oihartzunak are eta zabalago hedatu daitezke dauka helburu memoriari loturiko deialdi horrek. Izan ere, hau da haren muina: hautagaiei eskatzen zaie biurteko erakustaldian izandako hausnarketan eta proposamen artistikoetan oinarritutako proiektuak sor ditzatela, zernahi arte diziplina baliatuta. Nafarroako Gobernuak eta Baluarteek bultzatutako deialdia da, eta azaldu aurkeztu zuten 2024ko alditik hautatu diren proiektuak: sei gailendu dira. Aurkezpen zehaztu dutenez, guztira 90.000 euroko diru sail bat bideratuko dute artistentzat —BEZA ere erantsiko zaio kopuru horri—. Hautatuek irailaren 1era arteko epea dute lanak guztiz garatzeko, eta espero da emaitzak urte bukaeran izatea publikoarentzako ikusgai. Aurreratu duten informazioaren arabera, sei proiektuetako bakar batean erabiliko dute euskara.

**Marina Lameiro eta Tania Hernandez Velasco: *Tolo que tiene nombre es/ Nochi tlen quipia itoca ca/ Izena duen guztia da***

● Marina Lameirok eta Tania Hernandez Velascok 2024ko Iruñeko Topaketetan izandako lau artista eta pentasalariren hitzak izan dituzte oinarri proiektu artistikorako: Blanca Solares, Gilles Lipovetsky, Marta Segarra eta Sara Ahmed. Zehazki, Lameirok eta



Iruñeko Topaketen Memoria Artistikoko antolatzaile eta artista aukeratuak. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Hernandez Velascok zinema instalazio baten proiektua aurkeztu dute, eta Coatlicue jainkosa mexikarraren eta Mariren enkontrua irudikatuko dute horretan. Sortzaileen hitzetan, narratibak, besteak beste, gailentzen diren errelatoez eta erresistentziarako adierazpide kulturalak hausnartzeko bidea ematen die. Irudiak Nafarroan eta Mexikon filmatu dituzte.

**Protolectivo taldea: *Plantar una voz***

● Iruñeko Protolectivo taldearen *Plantar una voz* proiektuak erresonantziaren mugetan arakatzea du helburu nagusia. Lan horretan, kontaktuaren simulaziorako forma gisara ulertzen dute erresonantziaren muga, eta *feedback* fenomenoaren ere bereziki dute intereseko, ondorioz. Hain zuzen, soinu igorle eta uhinak itzularaziko dituzten ispiluz osatutako instalazio bat aurkeztuko dute artistek, gutxi-asko. Dioenez, lanaren asmoa da bibrazioei, ahotsei, memoriari eta presentziari buruzko gogoetak bultzatzea.

**Elisa Arteta: *magma***

● Elisa Artetak isiltasuna eta zentzumenen bidezko pertzepzioa jarri ditu erdigunean

→ Topaketen Memoria Artistikoa programaren 2024ko deialdian gailendutako sei proiektuen berri eman du Nafarroako Gobernuak.

→ Denek laguntza bat jasoko dute lanak garatzeko, eta espero da emaitzak urte bukaerarako izatea ikusgai.

*magma* bere proiektuan. Artistak aspaldi ditu gaiok begiz joak —ildo berean sortu zituen igande arte Baluarteko Harresi aretoan ikusgai izan duen *Estrategias para una transmutación* obrako piezak—, eta, aldi honetarako, esperientzia artistikoek gorputzean eragin dezaketen dardarari erreparatu dio bereziki. Instalazio bat sortu du, «espazio bat, non bermatuko den baldintzak ahalik eta hoherenak izatea pertzepziorako», artistak esplikatu duenez.

**Maria Castellanos Vicente: *Ecosistema Biónico. Parentescos entre plantas, máquinas y humanos***

● Maria Castellanos Vicentereko proiektuak landareen, gizakien eta makinaren arteko harremanak ditu ardatz, eta adimen artifiziala du laguntzaile. Izan ere, lorategi gisako bat eraikiko du, monitorizatu, eta asmoa da makinak eta landareek elkarrengandik ikasiko dutenari erreparatzea —preski, artistak 2009tik du aztergai «landareen lengoia»—. Epaimahaiak nabarmendu duenez, Castellanosen proiektuak etorkizunera zuzendua du begirada, balioko baitu gerora hel litezkeen agertokiak eta balizko elkarbizitzak irudikatzen.

**Leire Ipas: *Ceniza / Pixel***

● Errauntsaren eta pixelaren alderaketa da Leire Ipas artistaren proiektuaren ardatzetaiko bat, baina, zehazki, hau du helburua: ikertzea ballabide digitalen nola lausotu dezaket norkinaren artean eta beren inguruen arteko muga. Edonola ere, Ipasek aurrez ere aitortua du bere asmoa: uste du egiazki ez dagoela halako mugarik bien artean. Eta nolatan konparatu errauntsa eta pixela? Ipas: «Konnotazio oso diferenteak esleitu badizkiegu ere, biak dira partikula txiki-txiki osatuak, eta bietan da ezinezkoa partikulak bana-ka aztertuz guztiak elkarrekin zer osatzen duten jakitea».

**Dyck Rekalde: *Heterotopias***

● Rekaldek bi eskulturako instalazioa diseinatu du —portzelanazko arrautza formako pieza bat eta gres beltzeko zilindro bat dira—, eta asmoa da haren kopiak hiriko zenbait tokitan paratzea. Ez die inolako azalpenik erantsiko, eta, hala, artistak herritarren erreakzio zintak zein diren ikustea erdietsiko du, dioenez. Rekalderen asmoa da obra artistikoa erakusteko moduei buruzko gogoetak bultzatzea. ●